

BRASILGO KATUA

ARTHUR CONAN DOYLE

Moldapena eta lan orriak:

JOSU LARTATEGI

DESCLÉE DE BROUWER

BRASILGO KATUA

Gazteon zoritxarra da zaletasun garestiak ditugula, itxaropen handiak ere bai aberats bihurtzeko, senide aristokratikoak ere bai; berriz, **sosik** ez daukagu, ezta lanik ere. Kontua hau da, gure aitak konfiantza neurrigabekoa zuela lord Southerton mutilzaharrarengan. Aitak uste zuen osaba dirudunari esker nik ez nuela inolako arazorik izango dirua lortzeko lan egin barik. Aita oso gazte hil zen eta ez zuen ikusi oker zebilela. Osaba ez zen nire etorkizunaz kezkatu. Baina ni Otwell familiakoa nintzen, etxe onekoa, eta noizean behin opari bat heltzen zitzaidan. Horrek gogorarazten zidan Otweldarra nintzela. Ni, bitartean, lasai-lasai bizi nintzen, ezkongabe, Grosvenor Mansionsteko apartamentu batean. Egiten nuen gauza bakarra polora jolastea zen. Egunetik egunera zailagoa zen nire bizimodua ordaintzea. Gero eta jende gutxiago zegoen prest niri



dirua **mailegatzeko**. Akabua zen. **Nireak egin zuen**.

Lord Southerton-ez gain, seniderik hurbile-na Everard King nuen, gure aitaren loba eta nire lehengusua, Brasildik etorri berria. Dudarik gabe diruduna zen, zeren Greylands-eko **lursaila** erosi baitzuen, Suffolk-en, Clieston-on-the-Marsh herritik hurbil. Udaberriko goiz batean eskutitz bat jaso nuen, poz-pozik jaso ere: berarena zen, eta, esaten zidan bisitatxoa egiteko bere lursailera, Greylands Court-era. Egonaldi hori egiteko aukera primeran etorri zitzaidan, **zorretan bainengoen** eta puntu-puntu epaitegira joateko. Senide ezezagun horren lagun eginez gero, beharbada diru-arazoak gaudituko nituen. Mailetak **atundu** eta, arratsalde hartan bertan Clieston-on-the-Marsh-erantz abiatu nintzen.

Trenak geltoki txiki eta bakartian utzi ninduen. Ingurua oso laua zen eta erreka lasai batek zeharkatzen zuen **sigi-sagan**. Ez zegoeenez zalgurdirik nire zain (geroago jakin ahal

6



mailegatu: mailegua edo prestamoa egin.

-enak egin: norbait edo zerbaiten amaiera ebiteazina adierazteko esamoldea.

lursail: “finca”.

zorretan egon: zor asko eduki.

atundu: prestatu.

sigi-saga: S-mugimendua, “zigzag”.

izan nuen telegrama berandu heldu zela), nik neuk alokatu nuen bat. Gidariari esker jakin nuen Everard King jauna pertsonaia famatuenetariko bat zela inguruan. Oso eskuzabal jokutzen zuen herriko guztiekin, eta hori berri ona zen niretzat.

Bat-batean hegazti batek nire arreta erakarri zuen. Telegrafia-zutoin batean zegoen eta oso berezia zen, estrainioa. Handitxoa zen eta lumek kolore bizi-biziak zituzten. Ez nuen eza-gutzen. Gidariak azaldu zidan gizon horren lurretan geundela eta bertan animalia exotiko ugari zegoela. Horixe zen haren zaletasuna: Brasilgo oihanetatik animaliak ekarri eta Ingalaterran hezitzen saiatu. Parkeko ateaq pasa genituen.

Everard King jauna, nire lehengusu ezezaguna, atarian nuen zain. Itxuraz oso gizon xumea eta **abegitsua** zirudien, eta gorputzez txikerra baina gogorra zen, berrogeita bost urtekoa-edo, eta aurpegiz alaia, eguzki tropikalagatik beltzarana. Zuriz jantzita zegoen, laborari tropikalen modura. Buruan panamatar motako sonbreiru zabala zuen, atzerantz jausia.



abegitsu: ongi etorri beroa eta atsegina ematen duena.

—Emakumea, emakumea, etorri egin da gure gonbidatua! —egin zuen oihu—. Ongi etorri Greylands-era, ongi etorri! Ze pozik nagoen zu ezagutzeaz, lehengusu Marshall. Ohore handia da niretzat zu hona etortzea, etxe xume honetara.

Gizon ezin atseginagoa zen eta ni gustura sentitzen hasi nintzen. **Ordea**, haren emazteak jarrera hotza zuen nirekin, ia-ia lotsagabea. Jatorriz brasildarra zen, eta primeran moldatzen zen ingelesez. Hasieran, nik pentsatu nuen ez zituela gure ohiturak ezagutzen, horregatik hartu zuela jarrera hori, baina gero konturatu nintzen ezetz; ez zela hori. **Zera** irakurri nion begi beltz sakon horietan: itzul zaitez Londresera, itzuli Londresera berehala.

8

Alabaina, zor handiegiak nituen; eta buruan nituen asmoak ere garrantzitsuegiak ziren emaztearen jenio txarragatik **zapuzteko**. Gainera, lehengusuarekiko harremana minututik minutura ari zen hobetzen. **Ederto batean** hartu ninduen eta eskaini zidan logela zoragarria zen. Esan ere esan zidan eroso egoteko eta zer-bait behar izanez gero, berari eskatzeko beldurrik gabe. Puntu-puntu egon nintzen txeke



ordea: alabaina, hala ere, “sin embargo”.

zera: hau, honakoa.

zapuztu: galdu, hondatu, “echar a perder”.

ederto batean: oso ondo, primeran.

zuri bat eskatzeko, horrexek lagunduko zidala erosoago egoten. Baina goizegi zen halakoak eskatzen hasteko, ez baikenuen oraindik elkar ezagutzen. Dena dela, afaria ederra izan zen, eta horren osteko habanoak ere bai, eta niri iruditu zitzaidan munduko gizonik jatorrena eta abegikorrena zela.

Baina **biharamunean** ikusi nuen jenio txarrekoa ere bazela. Goizean, gosaltzen ari ginelarik, emazteak lotsagabeki hitz egin zidan eta senarrari aurpegi potolo eta irribarretsua desagertu zitzaion, eta haren orde z haserre bizi-biziko keinuak ageri.

—Mesedez, kanpora joango al zara, Marshall?

Esan behar dut, bide batez, izena Marshall King dudala.

Ni kanpora irten eta lehengusuak atea itxi zuen. Ateaz bestaldetik ahots isil bat entzuten zen, isila baina guztiz haserrea. Gogor hitz egin zion emazteari. Ni **aldendu** egin nintzen, atean belarria jartzea ez zaidalako gustatzen. Bat-batean pauso urduriz hurbildu zitzaidan andrea, negarrez.



biharamun: hurrengo eguna.

aldendu: urrundu, apartatu.